



Urte Gutxiko Aurrentzat  
KRISTAU DOTRIÑAREN  
lenengo ikasgaiak

—  
APEZPIKU JAUNAREN BAIMENA DU  
—

DONOSTIAN  
Altuna'tar Raimundo'ren Moldiztegian  
1914



R. 2906

M. 2894

R. 34827

ATV  
1.527




**Urte Gutxiko Aurrentzat**  
**KRISTAU DOTRIÑAREN**  
**lenengo ikasgaiak**

---

**APEZPIKU JAUNAREN BAIMENA DU**

---

DONOSTIAN  
Altuna'tar Raimundo'ren Moldiztegian  
1914





# KRISTAU DOTRIÑAREN LENENGO IKASGAIAK

---

Galdetzen det. Kristau zera?  
Erantzuten det. Bai, Jaungoikoaren gra-  
ziz.

G. Kristau señalea zein da?

E. Gurutze Santua.

Egizu.

Gurutze santuaren señaleagatik † gu-  
re etsaietatik † libra-gaitzatzu, gure  
Jaun eta Jaungoikoa †. Aitaren, eta  
Semearen, eta Espiritu Santuaren ize-  
nean †. Amen.

G. Kristauak ezaguerara iristen da-  
nian, zenbat gauza jakin bear ditu?

E. Lau gauza.

G. Zein dira?

E. Jakin zer sinistu, zer eskatu, zer egin eta zer artu bear duan.

## LENENGO ZATIA

### KRISTAUAK SINISTU BEAR DUANA

G. Sinismena edo Fedea, zer da?

E. Ikusi ez deguna sinistea Jaungoikoak agertu dualako.

G. Eta Jaungoikoa, nor da?

E. Da esan eta gogora al-diteken gauzik garaiena ta arrigarriena: Jaun bat baztergabe ona, altsua, jakintsua, zuzena, gauza guzien asiera ta azkena.

G. Zer persona dirade Jaungoikoagan?

E. Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua: iru Persona bana diranak.

G. Aita, Jaungoiko al da?

E. Bai, jauna.

G. Semea, Jaungoiko al da?

E. Bai, jauna.

G. Espiritu Santua, Jaungoiko al da?

E. Bai, jauna,

G. Iru Jaungoiko al dira?

E. Ez, jauna, baizik egizko Jaungoiko bakar bat.

G. Jaungoikoak gorputz iduririk bai al du guk bezela?

E. Ez, jauna, espiritu utsa da ta.

G. Iru Persona Jaungoikozkoetatik, gizon zein egin zan?

E. Bigarrena, Semea.

G. Irutasun edo Trinidadeko bigarren Persona gizon egiteaz, zer aditzen dezu?

E. Aditzen det, gureen antzeko gorputz ta anima bat artu zituala.

G. Jesukristo, nor da?

E. Da Jaungoiko biziaren Semea, gizon eginda.

G. Eta Jesukristo gure Jaunak, gugatik gurutze batean bizia emanaz, zertatik salbatu ginduzen?

E. Gure pekatutik eta deabruaren mendetik.

G. Bizitz onen ondoren, Jaungoikoak gizonai zer emango die?

E. Onai zerua, bere agindu santuak gorde zituztelako; ta gaiztoai betiko inpernua, gorde etzituztelako.

(Azaldu zerua ta inpernua zer diran.)

## KREDUA

Sinisten det Jaungoiko, Aita guzi-al-

dun, zeruaren eta lurraren Egilleagan. Eta bere Seme bakar Jesu-Kristo, gure Jaunagan: sortua izan zana Espiritu Santuaren egitez ta graziz, jaio zan Maria Birjiñagandik, padezitu zuan Ponzio Pilatosen mendean, izan zan gurutziltzatua, illa ta obiratua; jatxi zan inpernuetara, piztu zan illen artetik irugarren egunean, igo zan zeruetara, dago jarririk Jaungoiko Aita guzi-aldunaren eskuiko aldetik; andik etorriko da biziak eta illak juzgatzera. Sinisten det Espiritu Santuagan, Eliz Santu Katolikoa, Santuen alkartasuna, pekatuen barkapena, aragiaren piztutzea, betiko bizitza. Amen.

## BIGARREN ZATIA

KRISTAUAK ESKATU BEAR DUANA

### AITA GUREA

Aita gurea, zeruetan zaudena, santifikatua izan bedi zure izena: betor gugana zure erreñua; egin bedi zure borondatea, nolazeruan, ala lurrean. Egun iguzu gure eguneroko ogia: ta barka egizkigutzu gure zorrak, guk gure zordunai



barkatzen diegun bezela: ta ezgaitzatzu-  
la utzi tentazioan erortzen: baizik libra-  
gaitzatzu gaitzetik. Amen.

G. Aita gurea, nork esan zuan?

E. Jesukristo gure Jaunak.

## AGUR MARIA

Agur Maria, graziaz betea, Jauna da  
zurekin, bedeinkatua zera zu andre gu-  
zien artean, eta bedeinkatua da zure sa-  
beleko frutua, Jesus. Santa Maria, Jaun-  
goikoaren Ama, erregutu ezazu gu pe-  
katariokgatik, orain eta gure eriotzako  
orduan. Amen.

## GLORIA PATRI

Gloria Patri, et Filio, et Spiritui Sanc-  
to. Sicut erat in principio, et nunc, et  
semper, et in sæcula sæculorum. Amen.

## IRUGARREN ZATIA

KRISTAUAK EGIN BEAR DUANA

JAUNGOIKOAREN LEGEKO

AGINDUAK

Jaungoikoaren Legeko aginduak amar  
dira.

Lenengoa, Jaungoikoa gauza guzien gain maitatu.

Bigarrena, bere izen santuaz juramentu alperrik ez egin.

Irugarrena, jai egunak santifikatu.

Laugarrena, aita eta ama onratu.

Bostgarrena, iñor ez ill.

Seigarrena, aragizko pekaturik ez egin.

Zazpigarrena, ez ostu.

Zortzigarrena, iritzi okerrik ez jaso, ta gezurrik ez esan.

Bederatzigarrena, zure lagun urkoaren emazterik ez nai izan.

Amargarrena, besteren ondasunik ez kutiziatu.

Amar agindu oiek bitan sartzen dira: Jaungoikoa gauza guziengain maitatzean eta zure lagun urkoa zure burua bezela. Amen.

## ELIZ AMA SANTUAREN AGINDUAK

Eliz Ama Santuaren aginduak bost dira. Lenengoa, igande ta beste jai osoetan meza entzun.

Bigarrena, gutxienaz urtean bein conpesatu, ta lenago, illtzeko arraiskorik uste badu, ta Jaun-artu bear badu.

Irugarrena, Pazko loretsuan bere Parrokian, Jaun-artu.

Laugarrena, Eliz Ama Santuak agintzen dnanean barautu ta aragirik ez jan.

Bostgarrena, amarrenak, Jaungoikoaren Elizari, oi dan bezela ordaindu.

## LAUGARREN ZATIA

KRISTAUAK ARTU BEAR DUANA

ELIZ AMA SANTUAREN

SAKRAMENTUAK

Eliz Ama Santuaren Sakramentuak zazpi dira.

Lenengoa, Bataiua.

Bigarrena, Konpirmaziua.

Irugarrena, Aitorpena, edo Konpesiua.

Laugarrena, Komuniua.

Bostgarrena, Oleaziua.

Seigarrena, Ordena.

Zazpigarrena, Ezkontza.

G. Zazpi Sakramentu oiek, nork egin zituan?

E. Kristo gure Jaunak.

## AITORPENENKO SAKRAMENTUA

G. Aitorpeneko Sakramentua, zertako da?

E. Bataio ezkeroko egindako pekatuak barkatzeko.

G. Aitorpen on bat egiteko, zenbat gauza bear dira?

E. Bost, Jauna.

G. Zein dira?

E. Lenengo<sup>a</sup>, Azterpena.

Bigarrena, Damua.

Irugarrena, Asmua.

Laugarrena, Aitorpena.

Bostgarrena, Ordaña.

## KOMUNIOKO SAKRAMENTUA

G. Komunioko Sakramentua, zertako da?

E. Gure animen janari izateko.

G. Komunioko Sakramentu guziz Santuan, zer artzen dezu?

E. Kristo gure Jauna.

G. Pekatu aundi edo larriarekin arkitzen danak, ongi komulgatzeko, nola gertutu bear du?

E. Aitortuta.



**Kristauak, txikitatik esan oi  
dituan otoitz batzuek**

### SALBEA

Agur Erregiña, errukizko Ama, bizitz, gozotasun eta gure itxaropena, agur. Zuri deiez gaude Ebaren ume erbestetuok. Zuganonz gaude antsiz ta negarrez, negarrezko leku onetan. Ea bada, gure bi-tartekoa, itzuli itzatzu gugana zure begi errukitsu oiek, eta erbeste onen ondoren erakutsi egiguzu Jesus, zure sabeleko frutu bedeinkatua. ¡O biotz beraa! ¡O errukitsua! ¡O Maria Birjiñ gozoa! Erregutn ezazu gugatik, Jaungoikoaren Ama Santua, Kristoren aginduen diña egin gaitezen. Amen.

## NI PEKATARIA

Ni pekataria aitortzen naitzaio Jaungoiko guzi aldunari, Maria beti Birjiña Santuari, Migel Aingeru Santuari, Juan Bautista Santuari, Pedro ta Paulo Apostolu Santuai, Santu guziaz, ta zuri, Aita, pekatu geiegi egin dedala gogoz, itzez ta egitez, nere kulpaz, nere kulpaz, nere kulpa txit aundiaz. Orregatik erregutzen diot Maria beti Birjiña Santuari, Migel Aingeru Santuari, Juan Bautista Santuari, Pedro ta Paulo Apostolu Santuai, Santu guziaz ta zuri, Aita, erregutu degiozuela nigatik Jaungoiko gure Jaunari.

## NERE JESUKRISTO JAUNA

Nere Jesukristo Jauna, egizko Jaungoiko ta Gizon, nere Egille ta Eroslea: Zu zerana zeralako, ta beste gauza guziak baño geiago maitatzen zaitudalako, damu det nere biotz guzitik Zu atsekabetua, ta artzen det asmo sendoa iñoiz ez geiago pekaturik egiteko, konpesatu, ematen zatan penitenzia bete, ta aldegitiko Zu atsekabetzeko bide guzietatik. Eskeintzen dizkitzut, Jauna, nere

bizitza, lan eta nekeak, nere pekatu guz-  
zien ordañerako; ta zure ontasun eta  
erruki azken gabeen uste osoa daukat,  
barkatuko dizkidatzula zure odol ordain-  
gabeko, pasio ta eriotzaren irabazien-  
gatik, eta emango didazula grazia, bizitza  
ondu ta zure mendetasun santuan iraute-  
ko nere bizitza guzian. Amen.

ASTIRIK EZ DAGOANIAN EDO ESTUASUN-  
ALDIETAN ESAN LITEKEN  
KONTRIZIOZKO EGINTZ LABURRA

Biotz guztiz damu det, nere Jaun eta  
Jaungoikoa, Zu atsekabetua, Zu zerana  
zeralako ta gauza guzieren gain maite zai-  
tudalako. Lenagoill, zu berriz atsekabetu  
baño; ta geiago pekaturik ez egiteko ta  
pekaturako bide guzietatik aldegitako,  
asmo sendoa artzen det.



## OSAGARRIA

---

Kristauaren eguneroko otoizak

### Goizeko otoitzak

Gurutze Santuaren..... Aitaren eta Semearen.....

Nere Jaun eta Jaungoikoa, gauza guziena Asiera, Iraupena ta Azkena. Zuk ezerezetik egin ninduzun, eta zure esku ongilleagandik ondasun guztiak datozkit. Onela ezagutzen eta aitortzen det, eta orregatik beeratzen eta auspeztzen naiz begirapen oso batekin. *Egia bera zeralako*, Zugan eta Zuk esandako gauza guzietan sinisten det. *Neurrigabe zintzoa zeralako*, agindutakoak beteko dituzula uste det. Eta *Ontasun guziz maitagarria zeralako*, biotz guzitik maite zaitut eta urkoak, nere burua bezela, zugatik maite ditut. Eskerrak, Jauna, Zu ezagutu, maitatu ta lur onetan zure alde ibilli ta gero zorionekoa Zurekin batean zeruan izan nadin, egin nazulako; eskerrak eta esker garbi-garbiak, zure Seme Jesusen odolaren bidez jatorrizko pekatua ken-



du, ta Eleiz maitagarriaren ume egin nazulako. Ezin esan-al ontarte egin dizkidatzu, Jauna; nere bizitza ta ondasun guziak Zuk emanak ditut; eta ala ere, zure kaltez nabill?

*(Geldi-unetxo bat egin zazu emen. Ekarrri gogora, Jaungoikoak egun berriarekin ematen dizkitzun ongiak: osasuna, janaria, jantzia..... Oroitu zer dan zure utsegite erraz ta nagusiagoena. Artu one-lako pekatu ta pekaturako bidietatik urrutiratzeke asmoa..... Ta esan:)*

Damu det, Jauna, damu det biotz guztiz, Zu, ain ongillea ta maitekorra, atsekabetu zaitudalako. Nere gaurko asmoa da, pekatu guzietatik, eta batez ere grina ta makurrera gaiztoak eragin oi dizkidan..... utsegitietatik, iges egitea. ¡Ez nik geiago pekaturik! ¡Ez ta pekaturako biderik ere! Nere gogo, itz eta lan guziak zuri eskeintzen dizkitzut, Jauna; Zuk nai dezun bezela, zure gorapenerako, nere gaiztakeriak ordaintzeko, ta purgatorioko animen aldez, izan bitez. Erruki

zakizkit, Jauna, ta indazu al ditudan barkapen guziak irabazteko laguntza.

Aita gurea, Agur Maria, Gloria ta Kredua.

### Ama Birjiñari

Nere Ama ta nere jabea: ni osoro eskeintzen naitzazu, ta nere onginei ta maitetasunaren ezagungarritzat, ematen dizkitzut egun onetan nere begiak, nere entzukiak, nere mingaña, nere biotza, itz batean, ni naizan guztia. Zurea naizen ezkerro, ¡Ama guziz ona!, zure gauza bezela gorde, zaitu ta zuzendu nazazu.

Iru Agur Maria eta Salbea.

### Aingeru Zaitzalleari

Sortu nintzanetik Jaunak laguntzat emandako Aingeru Santua; argitu, zaitu ta lagun egidazu, gaur ta nere bizitzako egun guzietan.

### Santuai

Nere izeneko Santu ta beste zerutar guziak: lagun nazazute Jaungoikoaren aurrean.

Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.

## Arratseko Otoizak

Gurutze Santuaren.... Aitaren eta Semearen....

Nere Jaun eta Jaungoikoa, gauza guzien Asiera, Iraupena ta Azkena. Zuk ezerezetik egin ninduzun, eta zure esku ongilleagandik ondasun guztiak datozkit. Onela ezagutzen eta aitortzen det, eta orregatik beeratzen eta auspeztzen naiz begirapen oso batekin. *Egia bera* zeralako, Zugan eta Zuk esandako gauza guzietan sinisten det. *Neurrigabe zintzoa* zeralako, agindutakoak beteko dituzula uste det. Eta *Ontasun guziz maitagarria* zeralako, biotz guzitik maite zaitut, eta urkoak nere burua bezela zugatik maite ditut. Eskerrak, Jauna, Zu ezagutu, maitatu ta lur onetan zure alde ibilli, ta gero zorionekoa Zurekin batean zeruan izan nadin, egin nazulako; eskerrak eta esker garbi-garbiak, zure Seme Jesusen odolaren bidez jatorrizko pekatua kendu, ta Eleiz maitagarriaren ume egin nazulako. Ezin esan-al ontarte egin dizkidatzu, Jauna; nere bizitza ta ondasun guztiak Zuk emanak ditut; eta ala ere zure kaltez nabill?

(*Emen, apur bat ixilduta, Jaungoikoari argia eskaturik, ikusi bear dituzu, gogoz, itzez, lanez edo egin bear zana ez egiñez, egin dituzun utsegiteak. Batezere begiz jo beardituzu, zure griña nagusiak eragin dizkitzunak. Gero esan:*)

Nere Jaungoiko maitagarria: Zure aurrean belaunikatuta, barka eskean naukazu. Utsegite guziaz gorroto diet, ta era berezian, griña gaiztoak eragin dizkidanai. Itz ematen dizut, zure laguntzarekin urrutiratuko naizala, pekatutik eta pekaturako bidietatik. *Nere Jesu-kristo Jauna.....*

### Ama Birjiñari

Nere Ama ta nere jabea: ni osoro eskeintzen naitzazu, ta nere ongina ta maitetasunaren ezagungarritzat, ematen dizkitzut gau onetan nere begiak, nere entzukiak, nere mingaña, nere biotza, itz batean, ni naizan guztia. Zurea naizen ezkerro, ¡Ama guziz ona!, zure gauza bezela gorde, zaitu ta zuzendu nazazu.

Iru Agur Maria eta Salbea.

### Aingeru Zaitzalleari

Sortu nintzanetik Jaunak laguntzat emandako Aingeru Santua: argitu, zaitu ta lagun egidazu, gaur ta nere bizitzako egun guzietan.

### Santuai

Nere izeneko Santu ta beste zerutar guziak: lagun nazazute Jaungoikoaren aurrean.

Aita gurea, Agur Maria eta Gloria.

Il diranen animak pakean atsedean bezate. Amen.

*(Etzan baño len, ar zazu ur bedeinkatua, ta egizu azken otoitza, esanaz:)*

Jesus, Maria ta Jose, dedan eta naizen guzia ematen dizutet.

Jesus, Maria ta Jose, azken arnasetan lagun nazazute.

Jesus, Maria ta Jose, eriotz orduan nere anima ar zazute.

**A. M. D. G.**

